

ERRENTA ALDAKORRA 2021/URRIA/31

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBALA GAPI



INBERTSIO POLITIKA

Arriskua bere gain hartzen duten eta Nazioarteko Burtsetako baloreetan inbertitu nahi duten pertsonentzat, %75 eta %100 bitartean.

2021/10/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%3,52	%2,69	%14,94	%32,35	%11,02	%8,30	%7,15

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
%14,94	%3,93	%22,41	-%12,78	%10,83	%1,76	%2,84

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2021/10/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%10,81
Lurrunkortasun 3 urte**	%16,90

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinatasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Inflazioa bihurtu da, berriro ere, testuinguru ekonomikoaren protagonista nagusia urrian. Azken datuek 13 urtetako zenbateko maximoak utzi dituzte KPIren zifretan, Atlantikoaren bi aldeetan (urtez urtekoa % 5,4koa eta % 4,1ekoa EEBBetan eta Europan, hurrenez hurren; % 5,5ekoa Espainian). Prezioen gorakadaren ondoren, bereziki energiaren kostu handia ageri da, eta baita beste faktore batzuk ere, adibidez, hornikuntza kateetan etenak eta eskulan kualifikatua bilatzeko zailtasuna. Horiek guztiak eragin edo presio handia izaten ari dira jardueran, eta, ondorioz, susperraldia indarra galtzen ari da, hirugarren hiru hilekoko BPGren datuek erakusten duten bezala. Hori horrela, EEBBek urtekoturiko % 2ko erritmoarekin egin dute aurrera, hau da, aurreko hiru hilekoko % 6,7tik urruti. Txinaren hedapena ere eten egin da (% 4,9, aurrekoan


izaniko % 7,9koaren aldean). Bien bitartean, datua zerbait hobeia izan da Europan, izan ere, urtebeteko eritmorik bizkorrenarekin hazi da (urtez urtekoa % 3,7), baina modu desberdinean, Alemaniako eta Espainiako erregistro etsigarriekin. Ingurune honetan, Nazioarteko Diru Funtsak azpimarratu du arrazoiak behin-behinekoak direla, eta espero du balio kateetan izaniko arazoak pixkanaka arindu egingo direla 2022. urte hasieratik aurrera. Soilik hamarren bat murriztu du munduko BPGren hazkundearen estimazioa urte honetarako, uztailen aurrekusten zuenarekin konparatuta. Inflazioa altua den arren eta hazkundera moteldu egin den arren, banku zentralak normalizazioan aurrera egin nahi dute, baina merkatuarekiko leialtasunez. Hori horrela, Europako Banku Zentralak adierazi du finantza baldintza mesedegarri batzuei

eutsi ahal zaiela, pandemiaren kontrako bere programako aktiboen erosketa garbier eritmo txikiago batekin. Bestalde, epe motzeko tasetan igoerak izateko aukera baztertu du, azpimarratuz inflazioa behin-behinekoa dela, nahiz eta presio faktoreek aurrekusi baino denbora gehiago iraungo duten. Makro testuinguruan burtsak astindu zituzten zalantza guztiak hor egonagatik ere, hiru hilekoko enpresa emaitzen argitalpen kanpainaren alderdi positiboegi begiratu nahi izan diete burtsa horiek. Emaitza utzi dute enpresek gaitasuna dutela testuinguru ekonomiko berrira egokitzeko. Hori horrela, Amerikako indizeek errekor berriak lortu zituzte (D. Jones % +5,8, S&P, % +6,9 eta Nasdaq, % 7,9). Europan, Eurostoxx-ek % 5 batu du, eta lbexa eta Alemaniako Daxa atzerago daude (% 3 eta % 2,8, hurrenez

hurren). Munduko gainerako tokiei dagokienez, Japoniako burtsak galerekin amaitu du (% -1,9), eta, goraka doazen burtsak, guztiak batera, % 1 bakarrik igo dira, beraien artean alde handiarekin. Errenta finkoaren arloan, interes tasen gorakadak urrian ere jarraitu du, inflazio arloko presioek eraginiko kezkek jasoz. 10 urterako Amerikako zorraren bonua eta epe bereko Alemaniako haren homologoa igo egin dira, errentagarritasunaren % 1,55era eta % -0,11ra arte, hurrenez hurren. Gainera, Europako periferikoek arrisku primak areagotu zituzte, errenta finko pribatuak bezala. Dibisetan, euroa berriro ere 1,15\$/an dago dolararekiko, eta, bitartean, balioaren % 2 galdu du librarekiko. Era berean, lehengaien rallyak jarraitu egin du, eta petrolio gordina upeleko ia-ia 85 \$etara iritsi da.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	289.929.910,44
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbaltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Oso Altua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-



Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
PT. KUTXABANK BOLSA INTERNACIONAL CLASE CARTERA	%19,07
PT. KUTXABANK BOLSA EUROZONA CLASE CARTERA	%14,71
PT. KUTXABANK DIVIDENDO CLASE CARTERA	%12,92
PT. KUTXABANK BOLSA EMERGENTES CLASE CARTERA	%11,00
PT. KUTXABANK BOLSA SECTORIAL CLASE CARTERA	%9,92

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza personalizatua, ez eskaintza, eta ez eskara ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreneko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, Funttsaren eskuratzeko balioak eta lortutako errendagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioleak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funttsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, enfitate komertzializatzaileen webgunean eta CNMVren erregistroetan kontsultatu daitezke.

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBALA GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.

BASKEPENSIONES BURTSA GLOBAL PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneekin:
SIMULAGAILUA**

BASKEPENSIONES

BANAKAKO BGAEa